## UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL

## 2018ko AZAROAK 27 / 27 - NOVIEMBRE - 2018

**TOKIA / LUGAR:** UDALETXEKO BATZAR ARETOA
SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 2018/11/27

**HASIERA / INICIO:** 17:00etan

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):**
Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
2. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
3. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
4. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
6. Alkateordea, Don Jose Maria Andres Ibañez de Garaio jauna
Doña Olaia Albizu Gallastegi andrea
Don Harri Guridi Ordeñana jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EH BILDU)**
Don Daniel Maeztu Perez jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Jon Andoni del Amo Castro jauna
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Don Aritz Bravo Zubillaga jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna
Doña Maria Soledad Juaristi Alberdi andrea

**HERRIAREN ESKUBIDEA (SQ-2D)**
Don Julian Rios Santiago jauna
Don Jorge Varela Dorrio jauna
Don Francisco Javier Lopez Lakunza jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSOE) (PSE-EE (PSOE))**
1. Alkateordea, Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Don Mauricio Garcia Martin jauna

**ZINEGOTZIA / CONCEJAL (PP)**
Don Francisco Garate Mintegui jauna

**EZ ETORTZEA JUSTIFIKATU DU/EXCUSA SU ASISTENCIA**
5. Alkateordea, Don Humberto Jaio Sagasti jauna

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTEN ZIRRIBORROAK IRAKURTZEA ETA ONARTZEA: 2018KO MAIATZAREN 29KOA ETA 2018KO EKAINAREN 26KO OHIKOAK.**

IRAKURRI OSTEAN aurreko batzarreko akta-zirriborroak, 2018ko maiatzaren 29ko ohikoa eta 2018ko ekainaren 26ko ohikoa hain zuzen ere.

BOZKETA egin ostean, Udaleko Osoko Bilkurak, aho batez, **ONARTU EGITEN DU 2018ko maiatzaren 29**ko Osoko Bilkuraren ohiko akta eta **2018ko ekainaren 26**ko ohiko akta.

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LOS BORRADORES DE LAS ACTAS DE LA SESIONES ORDINARIAS DE 29 DE MAYO Y 26 DE JUNIO, AMBAS DE 2018.**

DADA LECTURA a los borradores de las Actas de las sesiones anteriores, correspondientes a las Ordinarias de 29 de Mayo y 26 de Junio, ambas de 2018.

PREVIA votación realizada al efecto, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, **APRUEBA** las Actas de los Plenos: Ordinario de **29 de Mayo** y Ordinario de **26 de Junio, ambos de 2018.**

**BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Betiko moduan, eskuragarri egon dira tramitazioko espediente guztiak Idazkaritza Nagusian.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

**DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:**

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Como siempre, todos los expedientes de tramitación han estado disponibles en la Secretaría General.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

**HIRU.- BIDEZKOA BALITZ, 21/2018/MC KREDITU ALDARAZPENAREN ESPEDIENTEA ONARTZEA. (OGASUNA, PERTSONALA ETA UDALTZAINGOAREN BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2018KO AZAROAREN 21EKOA).**

IRAKURRI OSTEAN, Ogasuna, Pertsonala eta Udaltzaingoaren Batzordearen irizpena 2018ko azaroaren 21ekoa, eta honako hau dioena:

**TRES.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL EXPEDIENTE DE CRÉDITO ADICIONAL Nº 21/2018/MC. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE HACIENDA, PERSONAL Y POLICÍA MUNICIPAL DE 21 DE NOVIEMBRE DE 2018).**

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Hacienda, Personal y Policía Municipal de 21 de Noviembre de 2018, del tenor literal siguiente:

"**21/18 MC** kreditu-aldarazpen espedientea ikusita.

EAJ/PNV (2) eta PSE-EE (PSOE) (1) ordezkarien aldeko botoekin eta, EH Bildu (2) eta SQ-2D (1) ordezkarien abstentzioarekin Osoko Bilkurara eramaten da hurrengo AKORDIOA:

Ondoren zehazten den **21/18 MC** kreditu-aldarazpen espedientea onartzea:

"Visto el expediente de modificación de crédito **21/18 MC**.

Con el voto a favor de los representantes de EAJ/PNV (2) y PSE-EE (PSOE) (1) y las abstenciones de los representantes de EH Bildu (2) y SQ-2D (1), se eleva al Ayuntamiento Pleno la adopción del siguiente ACUERDO:

Aprobar el expediente de modificación de crédito **21/18 MC** bajo la modalidad de crédito adicional de acuerdo con el siguiente detalle:

| **Aplicaciones que financian** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Aplicación** | | | **Descripción** | **Importe** |
| | 87002 | | Incorporación de Remanentes | 92.809,48 |
| | | | | |
| **Total** | | | | **92.809,48** |

| **Aplicaciones que reciben** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Aplicación** | | | **Descripción** | **Importe** |
| 41 | 3420 | 43105 | Org. Aut.Administrativo - Durango Kirolak | 92.809,48 |
| | | | Mayor aportación | |
| **Total** | | | | **92.809,48** |

Beronen azterketa eta baldintzak, 10/03 Foru Arauaren 31 eta 32 artikuluak eta aurrekontua betearazteko udal araudiaren 18 eta 19 oinarriak ezartzen dutena aintzat hartuta, kontu-hartzailetzako informean jasotzen dira, eta espediente hau abiarazteko oinarri dira.

Cuyo análisis y condiciones, según lo dispuesto en los Artsº. 31 y 32 de la Norma Foral 10/03 y NMEP Bases 18 y 19, se hallan recogidas unas y otras en el informe de Intervención que ha dado origen a este expediente.

* Idazkari Orokorra **Sorarrain Tolosa jaunak**: Gaur egun, kirol zerbitzuak ematen dituen enpresak uko egin dio indarrean dagoen kontratua luzatzeari eta honen ondorioz lizitazio prozedura aurreratu egin behar izan da. Kontratu hau 2019. urtean hastekoa da eta, sektore publikoko 3. disposizio gehigarriaren arabera, beharrezkoa da esleipenerako errekurtso finantzarioa kontsolidatuta izatea.

Kontratu honetarako, Durango Kirolakek, aurrekontuetan, 360.000 euro aurreikusita zeuzkan 22707 partidan, baina pleguak onartu eta lizitazioa hasi baino lehen, Durango Kirolaken kirol zerbitzuetako subrrogatutako pertsonalaren baldintza laboralen akordio arautzailea onartu da. Akordio hau irailaren

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: Hoy en día, la empresa que ofrece servicios deportivos se ha negado a prorrogar el contrato vigente y por lo tanto, se ha tenido que adelantar el procedimiento de licitación. El contrato comenzará en 2019 y según la tercera disposición adicional del sector público, es necesario que el recurso financiero para la adjudicación esté consolidado.

Para este contrato, Durango Kirolak tenía previstos en los presupuestos 360.000 euros en la partida 22707, pero antes de aprobar los pliegos e iniciar la licitación, se ha aprobado el acuerdo de regulación de las condiciones laborales del personal subrogado de los servicios deportivos de Durango Kirolak. Dicho acuerdo se firmó el 28 de septiembre y recoge

28an sinatu zen eta zerbitzua ematen ari den eta emango duen langileen soldata-igoera jasotzen du.

la subida salarial de los trabajadores que ofrecen y ofrecerán el servicio.

Igoera, guztira, 56.546,82 eurokoa da. Honetaz gain, akordio horren arabera, laneko denbora ere gutxitu egiten da eta horrek 10.641,64 euroko gain-kostua suposatzen du. Azkenik, oinarrizko kontratuan exekuzio kosteak betetzeko zeuden zailtasunak ikusita, Durango Kirolakeko juntak gastu orokorrak eta industria etekina %10ean igotzea erabaki zuen, horrela kontratuaren prezioa, BEZ barne, 452.809,48 eurokoa da.

La subida es, en total, de 56.546,82 euros. Aparte de ello, según dicho acuerdo, se reducirá el tiempo de trabajo y ello supone un sobrecoste de 10.641,64 euros. Por último, vistas las dificultades habidas en el contrato basal para cumplir con los costes de ejecución, la Junta de Durango Kirolak decidió subir en un 10 % el gasto general y el beneficio industrial. Así, el precio del contrato, IVA incluido, es de 452,809,48 euros.

Hau dela eta, kirol zerbitzuetako kontratua esleitu ahal izateko, Durangoko udalak, Durango Kirolak erakunde autonomoari luzatu beharreko ekarpena 92.809,48 eurokoa da. Azalpen honekin, Ogasun, Pertsonala eta Udaltzaingo Batzorde informatiboak, azaroaren 21ean izandako batzarrean, onartu egin zuen plenoari luzatzea 21/18 kreditu-aldarazpenaren espedientea onartzea.

Por ello, y para poder adjudicar el contrato de los servicios deportivos, la aportación que el Ayuntamiento de Durango debe hacer al organismo autónomo Durango Kirolak es de 92.809,48 euros. Con esa explicación, la Comisión Informativa de Hacienda, Personal y Policía Local, en la sesión del 21 de noviembre, aprobó el traslado al pleno la aprobación del expediente de modificación de crédito 21/18.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Kreditu-aldaketa honen helburua da Durango Kirolaken egiten diren jarduerak dinamizatzen ari diren begiraleen soldatak aldatzea eta hobetzea. Igoera ekarriko du ordainsarietan, eta jaitsiera, berriz, lan egin beharreko orduetan.

Akordio hori lortu da sindikatuen eta enpresako zuzendaritzaren bidez eta Gobernu Taldeko kideok uste dugu denontzat dela mesedegarria. Horregatik, aldeko botoa emango dugu.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Esta modificación de crédito tiene por objeto modificar y mejorar los salarios de los monitores y monitoras que dinamizan las actividades que se llevan a cabo en Durango Kirolak y supone un incremento en las retribuciones y un menos horas de trabajo.

Se llega a este acuerdo por medio de los sindicatos y la dirección de empresa y desde el Equipo de Gobierno pensamos que es beneficioso para todos y todas. Por ese motivo vamos a votar a favor.

* **Ríos Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: 92.809,48 euroko kreditu-aldaketak ez du ematen hemen aipatutako horretarako bakarrik, baita langileak kontratatzeko baldintzen plegua hobetzeko ere.

Gogora ekarri behar dugu aurreko pleguak zenbait arazo ekarri zituela eta enpresa esleipendunari galerak ekarri zizkiola,eta uste dugu

* Concejal **Sr. Ríos Santiago (Herriaren Eskubidea)**: La modificación de crédito de 92.809,48 euros no sólo da para lo que se ha comentado sino que da también para la mejora de un pliego de las condiciones de contratación con el personal.

Tenemos que recordar que el pliego anterior causó una serie de problemas e hizo a la empresa adjudicataria entrar en pérdidas y cree-

hori ez dugula bere neurrian kuantifikatzen, ez dugula kalkulu errealik egiten.

mos que a la hora de cuantificar eso no lo hacemos en la justa medida, no hacemos cálculos reales.

Kalitatezko zerbitzua eskaini nahi dugu. Baina eskaintza ekonomikoa teknikoaren gainetik jartzen jarraitzen da eta horrela langileak prekarizatu egiten dira eta zerbitzuaren kalitatea murriztu. Ondo kalkulatzen jarraitu behar dugu; ez soldatei eta igoerei dagokien zatia bakarrik, baizik Durango Kirolakek kalitatezko zerbitzua eskaintzeko behar diren baliabideak ere ondo kalkulatu behar dira.

Lo que pretendemos es ofrecer un servicio de calidad. Pero se sigue premiando la oferta económica sobre la técnica y lo que así se consigue es precarizar al trabajador o trabajadora y disminuir la calidad del servicio. Hay que seguir calculando bien, no solo la parte a contribuir en los salarios y subidas sino en los recursos necesarios para prestar un servicio de calidad desde Durango Kirolak.

* **Uribe Padilla andreak (EH Bildu)**: Komentatu da plegua arinago atera behar izan zela enpresak errenuntzia aurkeztu zuelako; bat ez, bi aurkeztu zituen. Lehenengo, 2017ko ekainean esan zuen ez zuela jarraituko baina ez zitzaion kasurik egin; azkenean abenduan ere esan zuen errenuntzia egingo zuela. Azkenean luzapen bat egin da ahal izan den moduan. Hemen bere egunean ez zen ondo atera, orain ere, hainbat hilabete beranduago, ikusten dugu behar zena baino diru gehiago behar dela.

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (EH Bildu)**: Se ha comentado que el pliego tuvo que salir antes porque la empresa presentó una renuncia; no fue una, fueron dos renuncias. Por primera vez, dijeron en junio de 2017 que no seguirían, pero no se les hizo caso; luego, también dijeron en diciembre que harían la renuncia. Al final, se ha hecho una prórroga como se ha podido. En su día no salió bien y ahora, cuando han pasado meses, vemos que hace falta más dinero de lo que se pensaba.

Guk beharrezkoa ikusten dugu soldata igoera batzuk daudelako. Plegu orokorrari zuzenketa asko egin genizkion eta onartu egin dira, eta uste dugu pleguak hobetu izana eta langileen baldintzen hobekuntzekin funtzionamendu hobea egongo dela eta durangaren onurako izango dela.

Nosotros creemos que es necesario, porque ha habido unas subidas de salario. Realizamos muchas enmiendas al pliego general y se han aprobado y creemos que la mejora de los pliegos y las condiciones de los trabajadores, el funcionamiento será mejor, en beneficio de los durangueses.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Oso zorrotz eta errespetu handiz ibili gara langileen eskubideak bermatzeko orduan. Aukera izan genuen, zegoen moduan atera ahal izateko baina Gobernu Taldearen borondatea hasieratik izan zen askatasun sindikala babestea eta errespetatzea eta, etengabe, kontaktuan egon gara gehiengoa daukan sindikatuarekin jakiteko, une oro, zertan eta zelan egon diren negoziazioak enpresa eta langileen arten.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Hemos actuado con rigurosidad y respeto al garantizar los derechos de los trabajadores. Tuvimos la oportunidad de sacarlo tal y como estaba, pero la voluntad del Equipo de Gobierno fue, desde el principio, proteger la libertad sindical y respetarla y hemos estado continuamente en contacto con el sindicato que posee la mayoría para saber, en todo momento, cómo iban las negociaciones entre la empresa y los trabajadores.

Beraz, egin duguna izan da ziurtatu, batez ere, sindikatu nagusienari, guk onartu egingo genituela eta arlo ekonomikoan islatu egingo genuela euren akordioaren ondorio ekonomikoak. Eta hori da gaur dakarguna hona.

Por lo tanto, lo que hemos hecho ha sido asegurar, sobre todo al principal sindicato, que nosotros aceptaríamos y plasmaríamos en el ámbito económico las consecuencias económicas de su acuerdo. Y eso es lo que traemos hoy aquí.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Uste dut Herriaren Eskubidearen Bozeramaileari ulertu diodala ekarpen ekonomikoa ez zela nahikoa. Ez dakigu zertan oinarrituta esan duen hori; izan ere, sindikatuei zein enpresari ondo iruditu zaie, nahikoak iruditu zaizkie egin diren kalkuluak eta langileak ere ados daude hiru urtean egingo diren igoerekin.

Haiek ez dute arazorik ikusten, ez dakit zergatik dakartzazuen gaur arazo horiek hona, kontuan hartuta gaia askotan jorratu dugula eta sindikatuekin hitz egin dugula soldata-igoerari eta lanaldia murrizteari buruz.

* **Ríos Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Niri iruditzen zait honetaz hitz egiteko testuingurua ez dela unean uneko negoziazio bat. Onartu behar da Durango Kirolaken lizitazioan enpresa esleipendunak uko egin zuela gai horiek sartuta egon gabe eta enpresa esleipendun horrek uko egitea justifikatu zuela, esanez, galerak izan zituela.

Kontua ez da azpikontratatuta dauden pertsonen lan-eskubideak bermatzea. Hemen askoz osoagoa den lizitazio bati buruz ari gara eta zerbitzu asko sartzen dira hor. Hala, eskubide horiek aitortuta, hurrengo hitzarmenaren negoziazioak zerbitzua, berriro ere, Durango Kirolakek azkenaldian duen dinamikan sartu ahal izango da.

Ez gara plegu berria lizitatzen hasi aurrekoa amaitu delako, baizik enpresa esleipendunak uko egin diolako.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Nire Taldearen izenean, berriz, nik hitz egingo dut. Esan duzuna ez da horrela izan. Idazkari jaunak gaur esan du irailean itxi egin zela hitzarmena sindikatu eta zuzendaritzaren artean eta akordio hori lortu arte itxaroten egon gara lizitazioa egiteko errespetuz eta tentuz jokatzeko euren arteko negoziazio horretan eta langileen eskubideei begira, eta horrela eginda gehiengoa daukan sindikatuak horrela eskatu duelako.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Me ha parecido entenderle al Portavoz de Herriaren Eskubidea que la aportación económica no era suficiente. No sabemos en base a qué dice eso, porque tanto la parte sindical como la empresa, lo han visto bien, ven suficiente los cálculos que se han llevado a cabo y la parte trabajadora está de acuerdo con los incrementos que se llevarán a lo largo de tres años.

Ellos no ven ningún problema, no sé por qué se tienen que traer hoy aquí esos problemas cuando lo hemos trabajado en numerosas ocasiones, lo hemos hablado con la parte sindical este aumento de salario y reducción de la jornada laboral.

* Concejal **Sr. Ríos Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Lo que creo es que el contexto en el que hay que hablar de esto no es una negociación puntual, hay que reconocer que en la licitación de Durango Kirolak se hace una renuncia por la parte de la empresa adjudicataria sin estar incluidos estos temas y esa empresa adjudicataria lo justifica porque se dan pérdidas.

No es cuestión de garantizar los derechos laborales de las personas que están subcontratadas, estamos hablando de una licitación mucho más completa que incorpora un montón de servicios y eso va a hacer que con el reconocimiento de esos derechos la negociación del próximo convenio pueda suponer que el servicio vuelva a entrar en la dinámica que últimamente lleva Durango Kirolak.

No hemos empezado a licitar el nuevo pliego en función de que este concluyó sino porque ha renunciado la empresa adjudicataria.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Volveré a hablar yo en nombre de mi Grupo. Lo que has dicho no ha sido así. El señor Secretario ha dicho hoy que en septiembre se cerró el convenio entre sindicatos y la dirección, y hemos estado esperando a que se alcanzara ese acuerdo para hacer la licitación, para actuar con respeto y prudencia respecto a esa negociación entre ellos, y considerando los derechos de los trabajadores, y se ha hecho así a petición del sindicato que tiene la mayoría.

Lan honen guztiaren ondorioz hona dakargu hau, eta dakarguna da bermatzea langileen eskubideak eta era berean, bermatzea zerbitzuaren kalitatea, alegia, zerbitzu publikoaren kalitatea, eta horregatik harro gaude eta egiten dugu proposamen hau.

A consecuencia de todo ese trabajo, lo que traemos aquí es la garantía de los derechos de los trabajadores y al mismo tiempo la garantía de la calidad del servicio; es decir, la calidad del servicio público, y así, estamos orgullosos de ello y hacemos esta propuesta.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

- Aldeko botoak: HAMAZAZPI, 7 Eusko Alderdi Jeltzalea, 7 Euskal Herria Bildu, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 1 Alderdi Popularra.
- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: HIRU, 3 Herriaren Eskubidea.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: DIECISIETE, 7 del Partido Nacionalista Vasco, 7 de Euskal Herria Bildu, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 1 del Partido Popular.
- Votos en contra: NINGUNO.
- Abstenciones: TRES, 3 de Herriaren Eskubidea.

Hortaz,

UDALEKO OSO BILKURAK, 10/03 Foru Arauaren 34. artikuluak ezartzen duenaren arabera, gehiengoaren botoarekin, onartu egiten du:

1. **21/2018** zk.dun kreditu-aldarazpenaren espedientea **HASIERA BATEAN** onartzea, gorago jasotako testua bihurtzen du.
2. Akordioa **jendaurrean erakustea HAMABOST (15) EGUNEZ,** honetarako iragarki bat jarriko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan.
3. Espedientea behin betiko onartuko da jendaurreko epe barruan ez bada erreklamaziorik aurkezten; kontrakoa gertatuko balitz, osoko bilkurak hilabeteko (1) epea izango du erreklamazioak ebazteko (aipatutako lege testuaren 150. artikulua).

Por lo tanto,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, al amparo de lo dispuesto en el Artº. 34 de la Norma Foral 10/03, por mayoría, acuerda:

1. Aprobar **INICIALMENTE** el expediente nº **21/2018** de Modificación de Crédito, conforme al detalle anteriormente transcrito.
2. Someterlo a **información pública** por espacio de **QUINCE (15) DIAS**, mediante su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia y Tablón de Edictos de la Casa Consistorial.
3. El expediente se considerará definitivamente aprobado si durante el citado plazo no se hubiesen presentado reclamaciones; en caso contrario, el Pleno dispondrá de un plazo de un (1) mes para resolverlo (Artº. 150 del mentado texto legal de H.L.).

**LAU.- EUSKAL HERRIA BILDU TALDEAREN MOZIOA, EUSKO TRENBIDE SAREARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA: 2018008761, 2108KO AZAROAREN 21EKOA).**

Euskal Herria Bildu Udal Taldeko Bozeramaileek izenpeturiko mozioa, Eusko Trenbide Sareari buruzkoa. Sarrera Erregistroa: 2018008761, 2018ko azaroaren 21ekoa, eta honako hau dioena:

"*2018ko uztailaren 17ko hirigintza batzordean, Eusko Trenbide Sareak (ETS) aurkezturiko PERI-1 Trenbidearen hirigintza planaren proposamenaren berri eman zen. Bertan ziren herritar askoren galdera eta eskariei jaramon egin gabe, Maria Jose Balier Orobio-Urrutia Alkateorde eta Hirigintza, Obrak eta Etxebizitza batzordearen zinegotzi delegatuak, aipatutako planaren hasierako onarpena sinatu zuen uztailaren 18an.*

*Ordurako, ETS hasita zegoen tren geltoki zaharraren eraiste-lanetan, eta baita inguruko lurzoruak egokitzen ere, hain zuzen ere, Sasikoa, Trenbide, Ezkurdi, Herriko Gudarien kalea eta Askatasun etorbidearen artean bide bat eta errotonda bat egiteko. Hortaz, aipatutako lanak hasita zeuden Hirigintza Planaren behin behineko onarpena egin barik, eta udal baimena eskatu barik. Honen berri eman zen hirigintza batzordean, bertan zelarik presidentea eta hirigintza, obrak eta etxebizitza batzordearen zinegotzi delegatua.*

*Ikusirik obrek aurrera jarraitzen zutela Hirigintza Planaren behin betiko onarpenik gabe eta udal baimenik ez zutelarik, eta EAJ eta PSEren udal gobernuak ezer egiten ez zuela ikusirik, nahiz eta uztailaren 17ko batzordetik jakinaren gainean egon, irailaren 3an, EH Bilduk ETSren obren gaineko txosten juridikoa eta teknikoa eskatu zituen. Halaber, ETSren aurrean zegozkien neurriak hartzea eskatu genuen, betiere, durangarren interesak defendatzeko.*

**CUATRO.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO EUSKAL HERRIA BILDU RELATIVA A EUSKO TRENBIDE SAREA. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2018008761, DE 21 DE NOVIEMBRE DE 2018).**

Dada cuenta de la Moción presentada por la representación del Grupo Municipal Euskal Herria Bildu, relativa a Eusko Trenbide Sarea, con Registro de Entrada nº 2018008761, de 21 de Noviembre de 2018:

"*El 17 de julio de 2018 se celebraba una Comisión de Urbanismo para informar de la propuesta de plan de urbanización del PERI-1 Ferrocarril presentada por Eusko Trenbide Sarea (ETS). Haciendo caso omiso a las preguntas y requerimientos de las numerosas vecinas y vecinos allí reunidos, la Teniente de Alcalde María José Balier Orobio-Urrutia, a la sazón concejala delegada de Urbanismo, Obras y Vivienda, firmaba el 18 de julio el decreto de aprobación provisional de tal plan.*

*Para entonces, ETS ya estaba realizando las obras de derribo de la antigua estación y el acondicionamiento de los terrenos adyacentes, en concreto para acometer la construcción del vial y la rotonda entre las calles Sasikoa - Trenbide, Ezkurdi y Herriko Gudarien - Askatasun etorbidea. Tales obras se estaban ya realizando, por tanto, sin la aprobación definitiva, ni siquiera provisional, del Plan de Urbanización, y sin solicitud de permiso o licencia municipal. Tal circunstancia se manifestó en la citada Comisión de Urbanismo, en presencia de su presidenta y concejala delegada de Urbanismo, Obras y Vivienda.*

*Ante la continuación de las obras sin la aprobación definitiva del Plan de Urbanización y sin licencia municipal, y la inacción del equipo de gobierno municipal de PNV y PSE, que desde la Comisión del 17 de julio conocía tal circunstancia, con fecha 3 de septiembre de 2018 EH Bildu solicita informe jurídico y técnico sobre la ejecución de las obras por parte de ETS. Así mismo, solicitamos se tomen las medidas coercitivas oportunas ante ETS, para salvaguardar los intereses municipales de Durango.*

*Azpimarratu nahi dugu ETSk ez duela inongo eskaririk egin obrak burutzeko (ez dago inongo sarrera erregistrorik honetaz). Eta udalak ere ez du egin beharrekoak egin herriko bide-antolamendua aldatzen duen obra honen aurrean, hau da, Udalak egin beharreko baimen-emateak eta ikuskapenak ez ditu egin. Dekretu-liburuetan ez dago ez txostenik ez baimenik gai honetaz.*

*Azaroaren 5ean, EH Bilduk eskaria egin eta bi hilabete geroago, eta kasik 5 hilabete igaro ostean hirigintza batzordean arazoa azaldu zenetik, alkateordeak onartzen du, trenbide sare orokorrari dagokion lursailetik kanpo dauden obrak ezin direla egin dagokion proiektua baimendu ez bada eta, hortaz, aktuazio klandestinoak direla. Ondoiroz, ETSri eskatzen dio obrak geldiarazi ditzala berehala. Garai onean, obrak kasik amaituta daudenean!*

*Zirkunstantzia halako pila aurrean, Durangoko Osoko Bilkurak onartu du:*

***MOZIOA***

1. *Durangoko Udalak dagokion prozedura jarriko du martxan ETSren aktuazio klandestinoak suposatzen duen arau-hauste mota tipifikatzeko. Halaber, hala balegokio, dagokion zigorra ezarriko luke.*

2. *Durangoko Udalak gaitzetsi egiten du ETSk erakutsitako jarrera klandestinoa, errespetu gutxikoa delako legedi, udal erakunde eta Durangoko herritarrekiko.*

3. *Durangoko Udalak ETSri eskatzen dio jarrera errespetuzkoa erakutsi dezala durangarrekiko eta, ondorioz, PERI-1 Trenbideari dagozkion aktuazioak geldiarazi ditzala herri-galdeketa egin bitartean.*

*Resaltamos que no consta (no hay ningún registro de entrada al tal efecto) que se haya realizado solicitud alguna por parte de ETS para la ejecución de esas obras. Tampoco se han llevado a cabo las correspondientes actuaciones municipales, ante la ejecución de una obra que supone una modificación y afecta a la ordenación viaria del municipio sin la correspondiente comunicación, supervisión y autorización-licencia municipal. No se encuentran en el libro de decretos, ni los informes oportunos, ni autorización alguna sobre este tema.*

*El 5 de noviembre, dos meses después del requerimiento de EH Bildu, y casi cinco desde la Comisión de Urbanismo en la que se expuso la problemática, la Teniente de Alcalde reconoce en la respuesta al requerimiento de EH Bildu que, en efecto, las obras que quedan fuera de la parcela correspondiente al sistema general ferroviario no pueden realizarse sin la previa aprobación del proyecto correspondiente y, por tanto, resultan actuaciones clandestinas. En consecuencia, ordena a ETS la inmediata suspensión de las obras. Cuando las obras ya se encuentran casi finalizadas.*

*Ante tal cúmulo de circunstancias, el Pleno del Ayuntamiento de Durango acuerda:*

***MOCIÓN***

1. *El Ayuntamiento de Durango iniciará el procedimiento oportuno para tipificar el tipo de infracción que ha supuesto esta actuación clandestina por parte de ETS, y a establecer la correspondiente sanción si hubiera lugar.*

2. *El Pleno del Ayuntamiento de Durango reprueba la actitud clandestina, poco respetuosa con la legalidad, con las instituciones municipales, y con la ciudadanía de Durango, demostrada por ETS.*

3. *El Pleno del Ayuntamiento de Durango requiere a ETS una actitud respetuosa con la ciudadanía de Durango y, en consecuencia, la paralización de todas las actuaciones correspondientes al PERI-1 Ferrocarril hasta que tenga lugar la consulta ciudadana solicitada a tal efecto.*

4. *Durangoko Udaleko osoko bilkurak gaitzetsi egiten du Udal Gobernu taldeak legedi, toki erakunde eta Durangoko herritarren defentsan erakutsitako utzikeria eta jarrera axolagabea."*

4. *El Pleno del Ayuntamiento de Durango reprueba la desidia y actitud negligente mostrada por el Equipo de Gobierno municipal en la defensa de la legalidad, las instituciones locales, y los intereses de la ciudadanía de Durango*."

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Bere momentuan ETSk kontratua atera zuen geltoki zaharra botatzeko; gu horren kontra agertu ginen balore historikoa zeukalako, baina ETStik eta gobernu taldetik esan ziguten hori bota egin behar zela sarrera berri bat eraikitzeko.

Guk hasieratik esaten genuen hori botako zela errepide bat egiteko eta errepide horren zentzu bakarra egingo diren bost dorre horiei zerbitzua ematea dela. Estazioa bota zen, sarrera berririk ez zen egin. Hasieratik ikusi zen hor errepide bat eta errotonda bat egiten ari zirela eta hori argi ikusten zen.

Herriaren Eskubideak, uztailaren 9an, salaketa bat sartu zuen horren inguruan. Hitzez hitz irakurriko dut: "*Dokumentu honen bidez eskatzen dute hartzeko salatutzat Askatasun etorbidea, Sasikoa, Tronperri eta Trenbide kaleen artean ETSk sustatutako ezkutuko obrak egikaritu izana eta hartzeko dagozkion neurriak, legezko neurriak, horren aurrean eta ekar ditzatela horiek ekarri beharreko ebazpenak*" Hau da, obrak hasi ziren eta hirigintza plana ez zegoen onartuta, ezta aurkeztuta ere ez.

Obrak hasi ziren eta uztailaren 9an Herriaren Eskubideak lehenengo salaketa jarri zuen. Uztailaren 17an Hirigintza Batzordea deitu zen hirigintza plana aurkezteko; batzorde horretara herritar asko hurbildu zen eta eskatu zuten itxoiteko eta momentu horretan ez onartzeko hirigintza plana, baina kasurik egin gabe hurrengo egunean, uztailaren 18an, Mª Jose Balierrek, Hirigintza zinegotziak, Dekretua sinatu zuen, baina, berez, behin behineko onarpena izan zen, ez zen behin betiko

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: En su momento, la ETS sacó el contrato para demoler la antigua estación; nosotros estuvimos en contra porque tenía valor histórico, pero desde ETS y el grupo de gobierno se nos dijo que había que demolerlo para construir una nueva entrada.

Nosotros decíamos desde el principio que la estación se demolería para construir una carretera y que el único sentido de esa carretera sería dar servicio a las cinco torres que se construirán. Se demolió la estación, y no se construyó la nueva entrada. Se vio desde el principio que allí lo que estaban construyendo era una carretera y una rotonda, y se veía claramente.

Herriaren Eskubidea, el 9 de julio, presentó una denuncia sobre ese tema. La leeré literalmente: "*Mediante este documento solicitan se tenga por denunciada la ejecución de obras clandestinas entre las calles Askatasun Etorbidea, Sasikoa, Tronperri y Trenbide kalea promovidas por ETS y se adopte las oportunas y regladas medidas de reacción frente aquellas dando traslado a las resoluciones que se adopten*". Es decir, comenzaron las obras y el plan de urbanismo no estaba aprobado, ni presentado.

Comenzaron las obras y el 9 de julio, Herriaren Eskubidea presentó la primera denuncia. El 17 de julio, se convocó a la Comisión de Urbanismo para presentar el plan de urbanismo; a la sesión acudió un gran número de ciudadanos y pidieron que se esperara y que no se aprobara el plan de urbanización en ese momento, pero al día siguiente, el 18 de julio, haciendo caso omiso a aquella petición, Mª Jose Balier, la Concejal de Urbanismo, firmó el Decreto, pero fue, en sí, la aprobación provisional, no era la

onarpena oraindik denbora zegoelako alegazioak aurkeztu ahal izateko, eta aurkeztu dira, eta oraindik ez dago behin betiko onarpenik; beraz, onartu barik dago hirigintza plana baina obrak bistan daude.

aprobación definitiva, ya que se disponía, aún, de tiempo para presentar alegaciones, las cuales se han presentado, y todavía no tenemos la aprobación definitiva; por lo tanto, el plan de urbanismo no está aprobado pero las obras se pueden ver.

Hori ikusita, EH Bilduk irailaren 3n eskaera bat sartu zuen txosten juridikoa eta teknikoa eskatuz eta, baita ere, ETSren aurrean zegozkion neurriak hartzea eskatu genuen. Orduan ez zen mugimendurik egon eta azaroaren 5ean erantzun bat heldu zitzaigun, bai gure taldeari eta bai Herriaren Eskubidea taldeari, eta erantzunean onartzen zen trenbide sare orokorrari dagokion lursailetik kanpo dauden obrak ezin direla egin dagokion proiektua baimendu ez bada eta, hortaz, aktuazio klandestinoak direla; ondorioz, ETSri eskatu zitzaion obrak geldiarazi zitzala berehala.

Visto aquello, EH Bildu, el 3 de septiembre, presentó una solicitud para obtener el informe jurídico y el informe técnico y solicitamos, también, que se tomaran las medidas oportunas ante ETS. Entonces no hubo ningún movimiento y el 5 de noviembre, nos llegó una respuesta, tanto a nuestro Grupo, como al grupo Herriaren Eskubidea y en aquella respuesta se admitía que las obras que se encuentran fuera de los terrenos pertenecientes a la red ferroviaria general no se pueden llevar a cabo sin la aprobación del correspondiente proyecto y que son, por lo tanto, actuaciones clandestinas; en consecuencia, se solicitó a ETS que paralizara las obras inmediatamente.

Hori azaroaren 5ean, hau da, lehenengo salaketatik bost hilabete pasatu eta gero. Beraz gure galdera hauxe: bost hilabete luze hauetan non egon da Gobernu Taldea? nora edo zeri begira? Oposizioko Taldeek salaketa egin ez balute, pentsatzen dugu ez zela ezer egingo, baina egin da bost hilabete pasatu eta gero eta obrak bukatuta daudenean. Orduan onartzen da obra klandestinoak direla eta orduan eskatzen da obra gelditzeko, obrak amaituta daudenean.

Eso fue el 5 de noviembre; es decir, una vez transcurridos cinco meses desde la primera denuncia. Así, nuestra pregunta es la siguiente: ¿en estos largos cinco meses, dónde ha estado el Equipo de Gobierno?, ¿Hacia dónde y hacia quién ha estado mirando? Si los Grupos de la oposición no hubiesen presentado la denuncia, creemos que no se hubiera hecho nada, pero se ha hecho cuando han pasado cinco meses y las obras están finalizadas. Entonces se acepta que las obras son clandestinas y se pide la paralización de las obras, cuando ya están terminadas.

Hemen, udal honetan, ematen du ETSk agintzen duela, Gobernu Taldeak beste nonbaitera begiratzen duen bitartean, beraz, eskatzen duguna honek 4 puntuak mozioan agertzen direnak.

Parece que aquí, en este Ayuntamiento manda la ETS mientras que el Equipo de Gobierno mira hacia otro lado. Por lo tanto, lo que pedimos son los 4 puntos que aparecen en la moción.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Azalpena, argi dago, gobernu-taldeari dago zuzenduta eta haren teilatuan edo ETSrenean dago orain pilota eta gustatuko litzaidake horren inguruko argudioak entzutea.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: La exposición, creo que queda clara, va dirigida al Equipo de Gobierno y la pelota está sobre su tejado o sobre la de ETS y me gustaría escuchar argumentos al respecto.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Ordezko testu bat aurkeztuko dugu. Irakurri egingo dizuet. Mozioa irakurtzen du erderaz:

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Presentamos un texto alternativo que leo a continuación. Lee la moción en castellano:

*"La Comisión de Urbanismo de 17 de julio de 2018 se celebró con el objeto principal de informar al resto de partidos políticos la resolución relativa al proyecto de urbanización del PERI FERROCARRIL.*

*Los proyectos de urbanización son proyectos técnicos para la ejecución de los servicios urbanos, acabados de suelo e instalación de los equipamientos de los suelos de cesión al uso público establecidos en los planes.*

*El proyecto de urbanización forma parte de la gestión y ejecución de un plan de ordenación aprobado en el año 2006. Visto el interés social suscitado por este proyecto, y con el fin de facilitar la participación ciudadana, el plazo otorgado para la presentación de alegaciones se amplió hasta el 28 de septiembre. Además se puso en marcha un proceso participación de jóvenes escolares, en el que se les invita a proponer los equipamientos de la futura urbanización que cubran sus expectativas. Este proceso, en el que han participado 673 jóvenes de entre 9 y 15 años de edad de cuatro centros educativos del municipio, ha dado como resultado un documento que será publicado en la web municipal y que será editado y devuelto a los centros en las próximas fechas.*

*En aquella Comisión de Urbanismo se puso de manifiesto que ETS estaba realizando unas obras junto a los accesos de la estación sin la pertinente licencia municipal o aprobación dl proyecto de urbanización. Las obras a las que se referían son las adjudicadas por ETS y que de acuerdo con lo publicado en su proceso de licitación se denominan "acondicionamiento de los terrenos colindantes con la estación de Durango". Las obras vinculadas al sistema ferroviario forman parte de dicho sistema general, regulado en la normativa sectorial de la red ferroviaria y no requieren de autorización municipal previa.*

*Mediante escrito de 13 de marzo fue solicitado informe técnico y jurídico sobre las obras que estaba realizando ETS. Ello en un momento en el que se estaba terminando de derribar la antigua estación, y en el que era evidente que ETS estaba realizando unas obras de mejora de sus accesos; por lo que, los servicios técnicos no vieron ningún elemento que pudiera suponer la necesidad de paralizar unas obras que, en cualquier caso se ajustan a lo previsto en la ordenación de las Normas Subsidiarias y del Plan del Peri-1 Ferrocarril.*

*Tras el parón veraniego, con fecha de 3 de septiembre, se solicitó nuevamente un informe técnico y jurídico sobre la ejecución de las obras que estaba realizando ETS, solicitando tomar las medidas oportunas para salvaguardar los intereses municipales de Durango. En este periodo, las obras de ETS continuaban, habiendo superado el límite de las parcelas determinadas como sistema general ferroviario, y así se determina en dichos informes, por lo que, ahora sí, se requirió a ETS que paralizara las obras que estaba realizando.*

*Las obras se ajustan a lo presentado en el proyecto de urbanización que se tramita a petición de ETS, pero para proseguir con ellas debe aprobarse dicho proyecto definitivamente. De hecho, una de las alegaciones pone en crisis la validez de la conexión de circulación rodada entre Herriko Gudarien y Sasikoa-Trenbide, y por ello, se ha ordenado la paralización de las mismas con fecha de 5 de noviembre.*

*ETS ha invertido hasta la fecha más de 100 millones de euros dentro del municipio, en obras que han supuesto una mejora estructural y que permitirá una mejor cohesión de nuestro pueblo.*

*El equipo de gobierno municipal está llevando a cabo un gran esfuerzo para aunar todos los intereses en juego en este espacio y conseguir el mejor resultado posible, teniendo en cuenta que la operación de soterramiento es una operación urbanística de gran importancia para el municipio.*

*Debemos centrar nuestros esfuerzos en que el espacio público sea de la mayor calidad posible. La apuesta fue valiente en su momento y lo sigue siendo hoy en día para un crecimiento sostenible del municipio.*

*Deshacer aquel plan aprobado podría suponer una gran hipoteca para las arcas municipales.*

***MOCION ALTERNATIVA***

1. *El Ayuntamiento de Durango corrobora que la parte de obras de urbanización realizadas fuera de las parcelas de sistema general y no vinculadas expresamente al sistema general ferroviario deberán ser previamente autorizadas mediante la aprobación definitiva del proyecto de urbanización, para garantizar que se realizan de acuerdo a las condiciones de este proyecto.*

2. *El Pleno del Ayuntamiento de Durango valora la gran inversión realizada por ETS en este municipio y le emplaza a seguir trabajando de manera coordinada para que el resultado de liberar los grandes espacios ocupados antiguamente por la infraestructura ferroviaria alcancen el mejor resultado posible para nuestro municipio.*

3. *El Pleno del Ayuntamiento de Durango aprueba el esfuerzo que se está llevando a cabo para aunar todos los intereses en juego en este espacio y conseguir el mejor resultado posible, sin hipotecar el desarrollo sostenible de Durango, tanto económico, social como medio ambientalmente*."

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Harritu egin gaitu ordezko mozio honek, uste baitugu gauza batzuk ez daudela mozio honetan jasota. Ez gara hemen eztabaidatzen hasiko, gure ustez, ETSk, baimenik gabe obrak abiarazita, durangarrekiko izan duen begirune-faltaren inguruan; ezta lur hauekin zer egin behar den erabakitzeko kontsulta eskatzen ari den Erabaki plataformarekiko izandako begirune-faltaren inguruan ere. ETSk, bitartean, erabakita du zer egin eta egiten hasi da, baimenik gabe.

Uztailaren 18an, hasierako onarpena izan zen, onarpen espres bat; aintzat hartu behar da Udalak hiru hilabete zituela onarpena emateko eta 18 egunean egin zuela, inoiz baino azkarrago. Hala ere, guk egindako salaketari dagokionez, ikusten dugu ez direla epeak hain ondo zaindu.

Gure Taldean, ekainean, urbanizazio-lan horiek hasi zirela ikusita, haiei buruz galdetu genuen Bulego Teknikoan eta erantzunak kezkatuta utzi gintuen: esan ziguten, ekainean, ez zutela, larrialdietako irteeraren obrez gain, beste inolako obraren informaziorik.

Egoerari buruzko informazioa eskuratu ondoren, Herriaren Eskubideak, uztailaren 9an, ezkutuko obrak salatu zituen. Ezkutuko obrek salaketa jaso

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Nos sorprende esta moción alternativa porque creemos que hay cosas que no están recogidas en esta moción. No vamos a ponernos a debatir sobre lo que creemos que puede ser una falta de respeto de ETS hacia los durangueses y duranguesas iniciando unas obras sin la pertinente autorización o la falta de respeto que puede haber resultado para la plataforma Erabaki, que está solicitando que se consulte qué hacer con este tipo de terrenos, mientras que ETS ya lo tiene decidido y se pone a ejecutarlo sin el permiso.

Hay una aprobación inicial el día 18 de julio de manera exprés; hay que tener en cuenta que el ayuntamiento disponía de tres meses para esta aprobación y la hizo en un tiempo record de 18 días. Sin embargo, en cuanto a la denuncia que nosotros hacemos, vemos que no se tiene el mismo miramiento en cuanto a los tiempos.

Nuestro Grupo, durante el mes de junio, al ver el inicio de estas obras de urbanización preguntamos en la oficina Técnica al respecto y la respuesta nos pareció preocupante: nos decían, en el mes de junio, que no estaban informados de ninguna obra más allá de la obras de salida de emergencia.

Una vez de que nos informamos de esta situación, Herriaren Eskubidea denunció el 9 de julio unas obras clandestinas, se denunciaban unas obras clandestinas, pero las obras

zuten, baina aurrera jarraitu zuten. Hirigintzako Batzordean, uztailaren 17an, Hirigintzako presidentea, gobernu taldeko beste bi ordezkari eta Bulego Teknikoko bi ordezkari bertan zirela, Herriaren Eskubideak eta EH Bilduk berriro salatu genuen obra haiek baimenik gabe ari zirela egiten. Saio hartako aktan honako hau dio: "*Ríos jaunak geltokiaren sarreraren inguruko urbanizazio-obrak egitea salatu nahi du. Bulego Teknikoak dio ez duela obra horien berririk*".

Uztailaren 17an, berriro egin genuen salaketa, baina aurrera jarraitu zuten obrak egiten. Irailaren 25eko osoko bilkuran, orain irakurriko ditudan galdera hauek egin genituen ustezko irregulartasun hauen inguruan eta batzuk, oraindik, erantzun gabe daude. Hitzez hitz irakurriko dut zer esan genuen: *"Ikusita hirigintzako ekintzaren programari eginiko txostena, uztailaren 18ko txostena, ikusten dugu Udal honek dioela proiektuaren 1. eta 2. faseak burututa daudela*".

Hala ere, uztailaren 17ko batzordearen saioan esan ziguten Udalak ez zekiela obrak egiten ari zirenik. Obren berri bazuten, zergatik esan ziguten ez zutela? Obrak hirigintzako proiektuaren onarpenik gabe egin direnez eta ikusita, guk salaketa jarrita ere, ez dituztela gerarazi, zer neurri hartzeko asmoa duzue lan hauek baimenik gabe egin izanaren aurka? Galdera hau, jakina, erantzunda gelditu da eta erantzuna da, obrak amaitzen uztea eta, ondoren, obrak gerarazi egin behar direla idaztea.

Azaroaren 6an jaso genuen uztailaren 9ko salaketaren erantzuna, salaketa egin eta lau hilabetera. Gardentasunari, gobernu irekiari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Durangoko Araudi Organikoaren 30. artikuluak honako hau dio: "*Udalak, gehienez 30 eguneko epean eman beharko du erantzuna*". Lau hilabetera erantzun ziguten. Esan berri duzue martxoaren 13tik irailaren 3rako tartean ez zenutela bat ere ikerketarik egin. Orduan hasi zineten ikertzen eta ez zenituzten ikusiko, beraz, bulego teknikora bidali genituen argazkiak, hirigintzako obrak abian daudela argi erakusten

siguieron adelante. En la comisión de Urbanismo el 17 de julio con la asistencia de la Presidenta de Urbanismo, dos representantes más del Equipo de Gobierno, dos representantes más de la Oficina Técnica, tanto Herriaren Eskubidea como EH Bildu volvimos a denunciar que estas obras se estaban efectuando sin el permiso. En el acta de esta comisión se puede leer *"El señor Ríos quiere denunciar la ejecución de las obras de urbanización del entorno de la entrada de la estación. La Oficina Técnica dice no tener constancia."*

El 17 de julio, volvemos a repetir pero las obras siguieron ejecutándose. En el pleno del 25 de septiembre realizamos las siguientes preguntas sobre estas presuntas irregularidades y algunas, hoy en día, están sin responder. Voy a leer literalmente lo que dijimos: "*Visto el informe al programa de acción urbanizadora, un informe del 18 de julio, podemos ver que este ayuntamiento expone que las fases 1 y 2 del proyecto de urbanización ya están ejecutadas."*

Pese a esto, en la comisión del pasado 17 de julio nos dijeron que el Ayuntamiento desconocía que se estuvieran ejecutando. Si tenían conocimiento de estas obras, por qué nos dijeron que no lo tenían. Dado que estas obras se han ejecutado sin la aprobación del proyecto de urbanización, y visto, que pese a nuestra denuncia no han procedido a paralizarlas qué medidas tienen pensado tomar contra la ejecución sin permiso de estas obras; obviamente, esta pregunta ha quedado respondida que es prácticamente dejar que terminen de realizarlas y después redactar la paralización de las mismas.

El pasado 6 de noviembre recibimos la contestación a la denuncia del 9 de julio, cuatro meses después. Según el Reglamento Orgánico de transparencia, gobierno abierto y participación ciudadana de Durango en su artículo 30 podemos leer "*El ayuntamiento deberá contestar en el plazo máximo de 30 días*"; nos contestaron cuatro meses después. Acaban de decir que entre el 13 de marzo y el 3 de septiembre no hicieron ninguna indagación. A partir de esta fecha empezaron a indagar, no debían ver las fotos que trasladamos a la oficina técnica donde se ve perfectamente que

dutenak. Bazenituzten datuak, bazenituzten planoak, bazenituzten argazkiak, bazenuten salaketa, baina obrek aurrera jarraitu zuten.

Gainera, hemen entzundako gauza bat ez dut ulertzen: obrak egin dira eta udalak idatzitako uztailaren 18ko txostenean jasota dago, ez daude arau subsidiarioetan oinarrituta, aldaketak daude eta udal honek izan behar luke aldaketa horien berri.

Hori guztia dela eta, bosgarren puntua gehitzea gustatuko litzaiguke, uste dugulako gobernu taldeak ez dituela bete araudizko epeak, uste dugulako ez duela bete Durangoko interesak babesteko betebeharra, ez duela bete ez gardentasunaren, ez gobernu irekiaren, ez eta herritarren parte-hartzearen ideia ere.

Uste dugu jendea soberan dutela, araudia, besteen iritzia... soberan dituztela. Oso gertaera larriez ari gara eta horregatik, bosgarren puntua gehitzea gustatuko litzaiguke: *"Durangoko Osoko Bilkurak Hirigintzako presidenteak presidente funtzioan dimisioa ematea eskatzen du, tren-geltokiaren inguruko hirigintzako obren kudeaketa-lan txarragatik"*.

* 4. Alkateordea **<u>Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)</u>**: Mozio alternatiboa daukagu, ez da guk asmatutakoa baizik eta Bulego Teknikoarekin zehatz-mehatz kontrastatua. Mozioa irakurtzen du:

se están ejecutando unas obras de urbanización. Tenían los datos, tenían planos, tenían fotos, tenían la denuncia pero las obras se siguieron ejecutando.

Además, he oído algo que no me cuadra, las obras se han realizado, y se recoge en el informe del 18 de julio redactado por este mismo Ayuntamiento, no están basadas en las normas subsidiarias, hay cambios y este Ayuntamiento debería tener conocimiento de dichos cambios.

Por todo esto, nos gustaría añadir un quinto punto porque creemos que el Equipo de Gobierno no ha cumplido con los plazos del reglamento porque creemos que no ha cumplido con la defensa de los intereses de Durango, no ha cumplido con la transparencia, con el gobierno abierto ni con la participación ciudadana.

Creemos que le sobra la gente, que le sobra el reglamento la opinión de los demás... estamos hablando de hechos muy graves y por eso, nos gustaría añadir un quinto punto que es *"El pleno del Ayuntamiento de Durango solicita la dimisión de la presidenta de Urbanismo en sus funciones de presidenta por la mala gestión de las obras de urbanización del entorno de la estación del tren"*.

* 4ª Tnte. de Alcalde **<u>Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)</u>**: Tenemos una moción alternativa, la cual no la hemos inventado, sino que la hemos contrastado detalladamente con la Oficina Técnica. Lee la moción:

*"2018ko uztailaren 17ko hirigintza batzordeko bileraren helburu nagusia alderdi politiko guztiei PERI TRENBIDEAren hirigintza proiektuari buruzko ebazpenaren berri ematea izan zen.*

*Hirigintza proiektuak proiektu teknikoak dira, hiri zerbitzuak garatzeko, lurrak finkatzeko eta plangintzetan erabilera publikorako ezarritako lurzoruen ekipamenduak instalatzeko.*

*Hirigintza proiektua 2006an onartutako antolamendu plan baten kudeaketa eta garapenaren baitan dago. Proiektuak gizartean sortu duen interesa ikusita, eta herritarren parte hartzea bultzatu guran, alegazioak aurkezteko epea irailaren 28ra arte luzatu zen. Horrez gain, ikasle gazteekin parte-hartze prozesu bat abiatu genuen, proposamenak egin zitzaten urbanizazio horretarako beharrezko ikusten dituzten ekipamenduen inguruan. Prozesu horretan herriko lau ikastetxetako 9 eta 15 urte arteko 673 gaztek hartu dute parte, eta euren ekarpenekin dokumento bat egin da, laster udalaren webgunean argitaratuko dena, eta editatu eta gero ikastetxeei helaraziko zaiena.*

*Aipatutako uztaileko hirigintza batzordean azaldu zen ETS obra batzuk egiten ari zela tren geltokiko sarbideen ondoan, horretarako udal baimenik eta hirigintza proiektuaren onarpenik barik. Obra horiek ETSk esleitutakoak dira, eta lizitazio prozesuan argitaratu zuten lez, "Durangoko geltokiaren inguruko lurrak egokitzea" izan da euren xedea. Trenbideari lotutako lanak trenbidearen sistema orokorraren barruan daude araututa, trenbide sarearen araudi sektorialak erregulatzen ditu, eta ez dute udal baimenik behar.*

*Martxoaren 13an egindako idatzi baten bidez, ETS egiten ari zen lanen txosten tekniko eta juridikoak eskatu ziren. Momentu hartan geltoki zaharra eraisten ari ziren, eta begibistakoa zen ETS geltokiko sarbideak hobetzeko obra batzuk egiten ari zela. Gauzak horrela, zerbitzu teknikoek ez zuten ikusi obrak gelditzeko arrazoirik ikusi; izan ere, egiten ari ziren lanak bat zetozen Peri-1 Trenbideko planean eta arau subsidiarioetan aurreikusitakoarekin.*

*Udako geldialdiaren ostean, irailaren 3an, berriro eskatu zen ETSren obren inguruko txosten tekniko eta juridikoa, durangarren interesak defendatzeko beharreko neurriak hartzea eskatuz. Artean ETSk obretan jarraitzen zuen, baina trenbide sistema orokorrean zehaztutako partzela kopurua gainditu zuen, eta horixe ematen dute aditzera txosten tekniko eta juridikoek. Hortaz, orduan bai, ETSri obrak gelditzeko eskatu zitzaion.*

*Obra hauek ETSk tramitatzeko eskatu zuen hirigintza proiektuan daude jasota, baina lanek jarraitzeko proiektu hori behin betiko onartu behar da. Ildo horretan, proiektuari aurkeztutako alegazio batek zalantzan jartzen du Herriko Gudarien Kalea eta Sasikoa-Trenbide arteko ibilgailuen zirkulazioko lotura, eta, hori dela eta, obrak gelditzea agindu da azaroaren 5ean.*

*ETSk gaur arte 100 milioi euro inbertitu ditu herrian, Durangon egiturazko hobekuntzak eta kohesio hobea eragin dituzten obretan.*

*Udaleko gobernu taldea ahalegin handia egiten ari da gune honen inguruko interes guztiak batzeko eta bertarako ahalik eta emaitza onena lortzeko; aintzat hartuta trenbidea lurperatzeko operazioa herriarentzako pausu urbanistiko handia izan dela.*

*Gune publiko horrek ahalik eta kalitate onena izateko egin behar dugu lan. Bere garaian apustu ausarta egin zen, eta gaur egun ere halaxe izaten jarraitzen du herriaren hazkunde iraunkorrerako.*

*2006an onartutako plana ezabatzea hipoteka handia izan daiteke udaleko diru-kutxentzat.*

*MOZIO ALTERNATIBOA*

1. *Durangoko Udalak berresten du egindako hirigintza lanen zati bat sistema orokorretik kanpoko lursailetan egin dela, trenbide sistema orokorrari berariaz lotu bako lurretan, eta horregatik, obra horiek egiteko baimena eman behar zela hirgintza proiektuaren behin betiko onarpenaren bidez, horrela, bermatu ahal izateko lanak proiektu honen baldintzen arabera egingo zirela.*

2. *Durangoko Udaleko udalbatzak balioan jartzen du ETSk herrian egindako inbertsio handia, eta lanean koordinatuta jarraitzera deitzen dio, lehenago trenbideak okupatzen zituen gune zabalak liberatzeko lanek gure herriarentzako ahalik eta emaitzarik onenak izan ditzaten.*

3. *Durangoko Udaleko udalbatzak begi onez ikusten du espazio honen inguruan dauden interes guztiak batzeko egiten ari den ahalegina, ahalik eta emaitza onenak lortu ditzagun Durangoko garapen iraunkorra hipotekatu barik, ekonomia arloan, arlo sozialean zein ingurumen arloan*."

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Espero genuen mozio alternatibo bat, horixe baita Gobernu Talde honen jarrera legegintzaldi honetan. EAJko Bozeramaleak esan du "*guk ez dugu asmatu*" eta ziur ezetz, ematen du ETSk idatzita dagoela.

Lehenengo puntuan onartzen da ETSk obra klandestinoak egin dituela eta horrela uzten du, ez dago zigorrik ez ezer. Dagoena da, bigarren puntuan, "*pelota egitea*", hau da, zigorra jarri beharrean ari gara esaten dena ondo dagoela eta txalotzen dugu ETSren jarrera. Bada, ez, ETSk txarto egin du eta zigorra merezi du, eta hori da udal duin batek eskatu beharko lukeena, baina gobernu talde honek egin duena guztiz kontrakoa izan da, beste alde batera begira egon da eta, azkeneko momentuan, eta oposizioak behartuta, obrak bukatuta daudenean onartu du obra hauek klandestinoak direla.

Mozioan aipatzen da baita ere "*Proceso participativo en el que han participado 673 jóvenes de entre 9 y 15 años de edad*". Ondo, baina 4.000 sinadura daude sartuta udaletxean eskatzeko 15 urtetik aurrerakoek ere erabakitzeko eskubidea izan dezaten, eta horretaz Gobernu Taldeak ez dio ezer.

Are gehiago, horrelako proiektu bat egin zen orain dela urte batzuk, umeekin. Prozesu horretatik irten zen puntu bat irakurriko dut "*Geltoki zaharraren berrerabilpena, gazteentzako lokalak eta bestelako jarduera sozio-ekonomikoak sustatzeko*". Hau aurreko prozesu batean eskatu zen eta horren gainean egin dena izan da errepidea eta errotonda ilegal bat. Irailaren 3an sartu genuen guk salaketa, baina, aldez aurretik, bazegoen salaketa bat Herriaren Eskubideak sartutakoa.

Uztailean argi zegoen han errotonda bat ari zirela egiten eta errotonda bat "*Ez da tren arloko azpiegitura orokorra, Udalari dagokion hiri-bide bat da*". Eta hori argi ikusten zen, baina Udala ez zen enteratu, Gobernu Taldea ez da enteratu orain arte eta, behin enteratutakoan, konturatu da obra ilegal bat egin dela eta hori zigortu beharrean proposatzen du ETS txalotzea. Ez da bidezkoa, eta Go-

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: Esperábamos una moción alternativa, ya que esa es la actitud de este Equipo de Gobierno en esta legislatura. La Portavoz del PNV ha dicho "*nosotros no hemos inventado nada*" y seguro que no, parece que está redactada por ETS.

En el primer punto se admite que ETS ha realizado unas obras clandestinas y lo deja así, ni hay castigos, ni hay nada. Lo que hay, en el segundo punto, es "hacer la pelota"; es decir, en vez de establecer un castigo, estamos diciendo que todo está bien y aplaudimos la actitud de ETS. Pues no, ETS ha actuado mal y merece un castigo, y eso es lo que un ayuntamiento digno debería solicitar, pero este Equipo de Gobierno ha hecho todo lo contrario; ha estado mirando hacia otro lado y en el último momento, forzado por la oposición y cuando las obras están ya finalizadas, admite que estas obras son clandestinas.

La moción menciona, también, el "*Proceso participativo en el que han participado 673 jóvenes de entre 9 y 15 años de edad*". Está bien, pero en el ayuntamiento están registradas 4.000 firmas para pedir que se tenga el derecho de decidir a partir de los 15 años, y el Equipo de Gobierno no menciona nada sobre ello.

Es más, hace algunos años se realizó un proyecto así, con niños. Leeré un punto que fue resultado de aquel proyecto: "*La reutilización de la antigua estación, para promover locales para jóvenes y otras actividades socio-económicas*". Esto se pidió en un proceso anterior y lo que se ha hecho allí han sido una carretera y una rotonda ilegales. El 3 de septiembre presentamos una denuncia, pero previamente, ya había una denuncia presentada por Herriaren Eskubidea.

En julio estaba ya claro que estaban construyendo una rotonda y una rotonda "*no es una infraestructura general de carácter ferroviario, es un vial urbano que corresponde al Ayuntamiento*". Y eso se veía claramente, pero el Ayuntamiento no se enteró, el Equipo de Gobierno no se ha enterado hasta ahora y una vez enterado, se ha dado cuenta de que se ha hecho una obra ilegal y en vez de castigar ese hecho,

bernu Talde duin batek egin behar duena da Udala defendatu, alegia, udalaren duintasuna eta herritarren interesak defendatu behar ditu.

Ezin da onartu obra ilegal batzuk egotea eta bigarren puntua izatea "*ETSk udalerri honetan egin duen inbertsio handia aitortzea eta...*". Eta hirugarren puntua "*espazio honetan jokoan dauden interes guztiak uztartzeko*". Egin behar dena da kontsulta bat. *"... Durangoren garapen jasangarria hipotekatu gabe*". Azken finean daukaguna da obra ilegal batzuk errepide eta errotonda bat egiteko, ez dakit zer duen jasangarritik parkeak egin beharrean kaleak egiteak eta ez dakit zer duen jasangarritik 5 dorre egitea eta espekulaziora bideratzea espazio hori, parke bat edo bestelako erabilpen bat eman beharrean.

Herriaren Eskubideak eskatu du bosgarren puntu bat sartzeko eta ondorio logikoa izan daiteke horrelako zerbait eskatzea.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Hain garrantzitsuak diren proiektuetan, arrunta eta ohikoa izaten da erakundeen arteko elkarlana. Lankidetza hau erakundeen arteko konfiantza-harreman batean dago oinarrituta. Abian diren lanak onuragarriak dira Durangorentzat eta denok dakigu Eusko Jaurlaritzak finantzatzen dituela.

Obra hauetan akats formal batzuk izan dira eta zuzendu egingo dira, dena normaltasunaren barruan eta erakundeen arteko elkarlanean kokatuta dago. Ez da egia ETSk ezkutuko lanak egin dituenik, Udalak une oro izan baitu egiten ari zirenaren berri eta herritarrek ere bai, eman baititugu azalpenak bidea lotzeko proiektuaren inguruan. Ez da egia ETSk Durangoko herritarrekiko begirunerik gabeko jarrera izan duenik, aurkakoa erakusten baitute udalerrian egiten ari diren inbertsioek.

Eta azkenik, zabarkeriazko eta utzikeriazko jarrera izateaz akusatu gaituzue eta Gobernu Taldeak ez du arrazoirik Udaleko teknikarien irizpideaz ez fidatzeko, horiek ematen baitigute informazioa une oro bete behar dugun eta betetzen dugun legezkotasunari buruz. Herriaren Eskubideak ikuspegi des-

propone aplaudir a ETS. No es justo y lo que un Equipo de Gobierno digno debería hacer es defender el Ayuntamiento; es decir, debe defender la dignidad del Ayuntamiento y los intereses de los ciudadanos.

Es inaceptable que haya habido unas obras ilegales y que el segundo punto hable de "*reconocer la gran inversión realizada por ETS en este municipio y...*". Y el tercer punto "*para aunar todos los intereses en juego en este espacio*". Lo que hay que hacer es una consulta. *"...sin hipotecar el desarrollo sostenible de Durango*". Al fin y al cabo, lo que tenemos son unas obras ilegales para construir una carretera y una rotonda, no sé qué tiene de sostenible ir haciendo calles en vez de parques y no sé qué tiene de sostenible construir 5 torres y utilizar ese espacio para la especulación, en vez de utilizarlo para hacer un parque o para otro uso.

Herriaren Eskubidea ha pedido que se introduzca un quinto punto y parece una consecuencia lógica que se pida algo así.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: En proyectos de esta envergadura la colaboración entre instituciones es algo normal y habitual. Esta colaboración se basa en una relación de confianza entre instituciones. Las obras que se están realizando son beneficiosas para Durango y, por todos y todas es sabido, que son financiadas por el Gobierno Vasco.

En estas obras ha habido unos fallos formales que se van a corregir, todo dentro de una normalidad y una colaboración entre instituciones. No es cierto que ETS haya realizado una actuación clandestina puesto que el Ayuntamiento conocía en todo momento lo que se estaba haciendo y también la ciudadanía puesto que se ha explicado el proyecto de la unión del vial. Tampoco es cierto que ETS haya tenido una actitud irrespetuosa con la ciudadanía de Durango puesto que las inversiones que está realizando en la localidad muestran lo contrario.

Y por último, en cuanto a las acusaciones de desidia y actitud negligente de las que nos acusan, el Equipo de Gobierno no tiene motivos para desconfiar del criterio de los técnicos y técnicas de este Ayuntamiento que son los que nos informan en todo momento de la legalidad

berdin bat aipatu du eta ikuspegi desberdin horretatik, ondorio gisa, pertsona baten dimisioa eskatzen du.

Gauzak hain garbi badituzte, jo dezatela auzitara eta froga dezatela arrazoia dutela, baina ez etorri hona errealitatean oinarritu gabeko manipulazioak ekartzera eta pertsona baten izen ona zikintzera. Hori oso zitala da, eta koldarra. Froga ezazue diozuena eta frogatzen duzuenean, eskatu orduan dimisioa.

* Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea): Ez digute gaitzespen pertsonalek eragingo. Auzitara jo behar bada, joko dugu. Oso gertaera larriez ari gara hemen Iruditzen zaigu presidentetzak ez dituela gauzak zuzen egin eta horren harira justifikatu eta eskatu dugu dimiti dezala. Mila modutan justifika genezake.

Hemen dugu hirigintza-proiektuaren hasierako onarpena eta jasota dago aurkezten ari direna ezin dela hirigintza-proiektutzat ere hartu, eta erredakzioan akats ugari daude. Baina hala ere, hasierako onarpena eman zitzaion eta hala ere, obrak egiten utzi egin da. Esan dezakegu, baita ere, ukatu egiten duzuela ezkutuko obrarik badenik, baina hala ere, dekretuak obra horiek berehala bertan behera uzteko agintzen duela.

Esan dezakegu erakundeen arteko lankidetza desberdin ulertzen dugula; guri iruditzen zaigu lankidetzetan jende guztiak hartzen duela parte eta ez alde batek erabakiak hartu eta gainerakoei jakinarazi ere egin gabe erabakitakoa gauzatu.

Uztailaren 9an jarri genuen salaketa, uztailaren 17an zuzenean azaldu genien batzordeko Presidenteari, Gobernu Taldeko beste bi kideri eta teknikariei, eta ez dute obrak geldiarazteko agindu azaroaren 6ra arte. Obrak gauzatzen utzi egin da.

* 4. Alkateordea Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV): Lehen esan dudan moduan guk ez dugu hau asmatu baina bai idatzi eta gure idatzia udal honetako bulego teknikoarekin kontrastatu dugu, ez ETSrekin.

que tenemos que cumplir y que cumplimos. Herriaren Eskubidea habla de una visión diferente y de esa visión diferente, como consecuencia, pide la dimisión de una persona.

Si tan claro lo tiene vayan a los tribunales y demuestren que tienen razón pero no vengan aquí con manipulaciones que no son realidad y ensucien el nombre de una persona porque eso es muy ruin y cobarde; demuestren lo que están diciendo y cuando lo demuestren pidan entonces la dimisión.

* Concejal Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea): No nos van a afectar las descalificaciones personales, si hay que llevar las cosas a juicio las llevamos. Hablamos de hechos muy graves. Entendemos que las cosas no se han hecho de forma correcta por parte de la presidencia y por eso lo hemos justificado y solicitado su dimisión. Podríamos justificarlo de mil maneras.

Aquí tenemos la aprobación inicial del proyecto de urbanización donde, incluso, se dicen cosas como que lo que se presenta ni siquiera puede ser considerado como un proyecto de urbanización, donde se sacan muchísimos defectos a la redacción. Pero, pese a todo, se aprobó inicialmente y, pese a todo, se han consentido estas obras. También podemos decir que niegan que haya obras clandestinas, sin embargo, el decreto ordena la inmediata suspensión de estas obras.

Podemos decir que entendemos la colaboración entre instituciones de diferente manera; nosotros creemos que una colaboración es en la que toma parte todo el mundo y no en las que una parte toma decisiones y las ejecuta sin ni siquiera avisar al resto.

Desde el 9 de julio que pusimos la denuncia, desde el 17 de julio que cara a cara se lo expusimos a la Presidenta de la comisión, a dos personas más del Equipo de Gobierno y a la parte técnica, hasta el 6 de noviembre no se ordena la paralización. Se ha permitido la ejecución de estas obras.

* 4ª Tnte. de Alcalde Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV): Tal y como he dicho antes, nosotros no hemos inventado esto, pero sí que lo hemos redactado, y hemos contrastado nuestro escrito con la oficina técnica de este Ayuntamiento, y no con ETS.

Herriaren Eskubideari esan behar diogu guk ez dugula zalantzan jartzen urbanismoko presidentearen lana, betiere, legearen barruan egin duelako lana: interes orokorraren inguruan egin du lana eta, beti, duintasunez. Onetsi egiten dugu Mari Jose Balierren lana eta gure eskerrik beroena ematen diogu. Gure laguntzarik beroena izango du beti.

Debemos decirle a Herriaren Eskubidea que nosotros no ponemos en duda el trabajo de la presidenta de urbanismo, ya que ha trabajado, siempre, dentro de la ley; ha trabajado a favor del interés general, y siempre, con dignidad. Consideramos que el trabajo de Mari Jose Balier es bueno y le brindamos nuestro agradecimiento más cálido. Contará siempre con nuestra colaboración más sincera.

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Argi eta garbi onartzen da, Herriaren Eskubideari eta guri heldu zaigun txostenean, obra horiek klandestinoak direla

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: Se admite claramente, en el informe que nos llegó a nosotros y a Herriaren Eskubidea, que dichas obras son clandestinas.

*"Sestra gaineko lursaila egokitzeko lanek, S-3 eta S-4 lursailetakoek, 2.982 metro koadro ingururi eragiten die eta trenbideko jabari publikoko 365 metro koadro ingururi ere egiten die, sestra gaineko espazio libreetarako lurrei alegia, geltokitik abiatzen den traza, Abadiñorako noranzkoan, nagusituta, beraz, 1.187 metro koadro inguruko egokitzea egin da sistema orokorreko lursailetatik kanpo eta horiek legozkieke arau subsidiarioetan Sasikoa, Tronperri eta Trenbide kaleen arteko bidegurutzerako aurrez ikusitako errotondaren inguruari eta hala, lotura egingo litzateke Herriko Gudarien kalearekin eta hobetu egingo litzateke geltokirako sarbidea. Estali egin nahi da eragozpen gutxiago izateko eta segurtasuna eta erabilera hobetzeko.*

*"Las obras del acondicionamiento del terreno sobre rasante que se realiza sobre las parcelas S-3 y S-4 afectan a unos 2.982 metros cuadrados, afectan además a unos 365 metros cuadrados de dominio público ferroviario con destino a espacios libres sobre rasante, predominación de la traza desde la estación, sentido Abadiño, por lo que se produce el acondicionamiento de unos 1.187 metros cuadrados fuera de las parcelas del sistema general que corresponderían a la zona de la rotonda prevista en las normas subsidiarias en el cruce entre las calles Sasikoa, Tronperri y Trenbide que permitiría la conexión con Herriko Gudarien kalea y la mejora del acceso actual a la estación que se pretende cubrir para reducir las molestias y mejorar la seguridad y utilización.*

*Beraz, deskribatutako obrak, batez ere, trenbideko sistema orokorraren lursailari lotutakoak dira. Hala ere, trenbideko sistema orokorretik kanpo gelditzen diren obrak –errotondarenak– ezin dira egin aurrez dagokion proiektua onartu gabe. Proiektu hori onartu gabe dago eta, beraz:*

*Por lo tanto, las obras descritas corresponden principalmente a obras vinculadas a la parcela del sistema general ferroviario, si bien las obras que quedan fuera de la parcela del sistema general ferroviario - que es la rotonda – no pueden realizarse sin la previa aprobación del proyecto correspondiente que está sin aprobar y por lo tanto:*

*1.- Ebatzi dut agintzea gera daitezela berehala bertan behera Eusko Trenbide Sarea trenbideko sistema orokorraren lursailetik kanpo egiten ari den obrak, dagokion hirigintzako proiektua onartzen den arte."*

*1.- He resuelto ordenar la inmediata suspensión de las obras que se están llevando a cabo por Eusko Trenbide Sarea fuera de la parcela del sistema general ferroviario hasta la aprobación del correspondiente proyecto de urbanización."*

Beraz obra horiek, errotonda behintzat, klandestinoak dira. Eta hori onartu du Bulego Teknikoak eta sinatu du Mari Jose Balierrek, Hirigintza zinegotziak. Salatu zenetik 4 hilabete pasatu dira eta bitartean obrak egiten jarraitu dute: errotondarena

Por lo tanto, esas obras, al menos la rotonda, son clandestinas. Y así lo ha admitido la Oficina Técnica y así lo ha firmado, Mari Jose Balier, la concejal de Urbanismo. Han transcurrido 4 meses desde que se presentó la denuncia, y en

uztailetik argi zegoen. ETSk obra ilegal batzuk egin ditu, Gobernu Taldea jakinaren gainean zegoen, uztailetik behintzat, eta ez da mugitu orain arte eta mugitu denean bakarrik izan da ETSren jarrera txalotzeko.

ese periodo han seguido adelante con las obras: el tema de la rotonda estaba claro desde julio. ETS ha hecho unas obras ilegales, el grupo de gobierno estaba al tanto, al menos desde julio, y no se ha movido hasta ahora, y cuando se ha movido ha sido, solamente, para aplaudir la actitud de ETS.

Eta hori salatu beharra dago eta ondorio batzuk hartu behar dira, eta ondorio horiek dira zigorrak eta ETSri esatea gelditzeko.

Eso hay que denunciarlo y debe tener consecuencias y esas consecuencias deben ser sanciones y decirle a ETS que pare.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Bozkatu egingo dugu. Jatorrizko mozioan sartu egiten da proposatutako bosgarren puntua, beraz, lehenengo ordezko mozioa bozkatuko dugu eta gero jatorrizkoa.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Procederemos a la votación. En la moción original se incluye el punto cinco, por lo tanto, votaremos, primero, la moción alternativa y después, la original.

Ordezko mozioa, Eusko Alderdi Jeltzalea eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra Taldeek aurkeztutakoa:

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Eusko Alderdi Jeltzalea, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 1 Alderdi Popularra.

Moción alternativa presentada por los Grupos Partido Nacionalista Vasco y Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra:

- Votos a favor: DIEZ, 7 del Partido Nacionalista Vasco, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 1 del Partido Popular.

Jatorrizko mozioa Euskal Herria Bildu Taldeak aurkeztutakoa:

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.

Moción original presentada por Euskal Herria Bildu:

- Votos a favor: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Berriro bozkatu behar dugu.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Tenemos que volver a votar.

Ordezko mozioa, Eusko Alderdi Jeltzalea eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra Taldeek aurkeztutakoa:

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Eusko Alderdi Jeltzalea, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 1 Alderdi Popularra.

Moción alternativa presentada por los Grupos Partido Nacionalista Vasco y Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra:

- Votos a favor: DIEZ, 7 del Partido Nacionalista Vasco, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 1 del Partido Popular.

Jatorrizko mozioa Euskal Herria Bildu Taldeak aurkeztutakoa:

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin eta Alkate andreak kalitatezko botoa erabiliz, **ONARTU EGIN DU Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerrak** aurkezturiko **ordezko mozioaren** testua.

Moción original presentada por Euskal Herria Bildu:

- Votos a favor: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.

En consecuencia,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría y haciendo la Alcaldesa uso del voto de calidad, **APRUEBA** el texto de la **Moción alternativa** presentada por el **Partido Nacionalista Vasco y el Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra**, anteriormente transcrita.

**BOST.- EUSKAL HERRIA BILDU TALDEAREN MOZIOA, SAN FAUSTO ONDOAN DAGOEN AZALERA HANDIKO MERKATARITZA INSTALAZIOARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA: 2018008762, 2108KO AZAROAREN 21EKOA).**

Euskal Herria Bildu Udal Taldeko Bozeramaileek izenpeturiko mozioa, San Fausto ondoan dagoen azalera handiko merkataritza instalazioari buruzkoa. Sarrera Erregistroa: 2018008762, 2018ko azaroaren 21ekoa, eta honako hau dioena:

*"Abadiñoko udalak, San Fausto ondoan dagoen lurzorua birsailkatzeko egitasmoarekin aurrera jarraitzen du. Dagoeneko egin beharreko Plan Orokorraren aldaketa puntualaren hasierako onarpena onartu du. Era horretan Durangoko mugetan dauden 31.973 metro karratu, gaur egun urbaniza ezinak direnak, merkatal erabilerarako urbanizagarriak izango dira.*

*Dendak Bai elkarteak adierazi duenez, mota honetako lur eremu bat, merkatal gune handi bat ezartzeko, gure herriko tokiko merkatarientzat, dagoeneko larri dagoen sektorearentzat, hondamendia izan daiteke. Horrek dakartzan ondorioekin zerbitzu herri batentzako.*

**CINCO.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO EUSKAL HERRIA BILDU RELATIVA A LA INSTALACIÓN DE UNA GRAN SUPERFICIE COMERCIAL PRÓXIMA A SAN FAUSTO. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2018008762, DE 21 DE NOVIEMBRE DE 2018).**

Dada cuenta de la Moción presentada por la representación del Grupo Municipal Euskal Herria Bildu, relativa a la instalación de una gran superficie comercial próxima a San Fausto, con Registro de Entrada nº 2018008762, de 21 de Noviembre de 2018:

"*El Ayuntamiento de Abadiño sigue adelante con el proyecto de recalificación del suelo próximo a San Fausto. De hecho, ha llevado a cabo la aprobación inicial de la modificación puntual del Plan General. Así, 31.973 metro cuadrados próximos a la muga de Durango, en estos momentos no urbanizables, se convertirán en urbanizables para uso comercial.*

*Tal y como lo ha señalado la asociación Dendak Bai, la recalificación de este suelo para la instalación de una gran superficie comercial supondría una hecatombe para nuestro comercio local, el cual se encuentra en estado realmente complicado, además de las consecuencias que derivarían para una ciudad de servicios como lo es Durango.*

*Horretaz gain, Abadiñoko udalean aurkeztutako mugikortasun azterketek argi uzten dutenez, egunean 3.000 kotxe berri inguru gehiago erakarriko lituzke garapen urbanistiko horrek. Kotxe kopuru horrek eragozpen larriak sortuko lituzke honezkero ordu konkretu batzuetan, kotxez gainezka dauden inguruko errepidetan eta eragozpenak ere San Fausto auzoan.*

*Por otro lado, los estudios de movilidad presentados en el Ayuntamiento de Durango dejan claro que dicho desarrollo urbanístico supondrá que circularán 3.000 coches más al día en ese entorno. El aumento de vehículos acarreará graves problemas en determinadas horas del día en los accesos que ya ahora están colapsados tanto en las carreteras anexas como en el barrio de San Fausto.*

*Hau guztia gutxi balitz, udal planeamenduko tresnen gainetik dagoen, Durangaldeko Lurralde Zatikako Plana, alegia, gure eskualdearen lurralde garapena era orokorrean zehazten duen dokumentuak, gune horrentzako ez du merkatal erabilerentzako lurzorurik aurreikusten. Horren ordez bere proposamena erabat ezberdina da, zehazki zientzia parkea eta prestakuntza eremua proposatzen du hurrengo azalpena emanez:*

*Además, el Plan Parcial del Duranguesado, que es un plan supramunicipal y determina el desarrollo territorial de la comarca de modo general, no prevé para esa zona el establecimiento de suelo de uso comercial. Es más, la propuesta que realiza va justo en el sentido contrario, puesto que propone un parque de ciencias y formación, fundamentándolo de la siguiente manera:*

*"Bidezkotzat hartzen da Eskualde Egiturari ekipamendu hau gehitzea, alegia, Prestakuntza Eremua eta Zientzia Parkea, Energia Berriztagarriekin eta Ingurumenaren Kontrol Sarearekin erlazionaturik. Baliteke kokapen desberdinak izatea, dena dela, LZP honek baterako planeamendua proposatzen du Durango alboko Abadiño udalerriko lurretan, horrenbestez, Prestakuntzatik eta Ikerketatik eratorritako sinergien probetxua aterako litzateke eta Prestakuntzaren eta Enpresaren erlazioa faboratu."*

*"Se considera procedente añadir a la estructura de ámbito comarcal un equipamiento destinado a la formación y parque de ciencias, que estaría relacionado con la energía renovable y la red de control del medio ambiente. Pueden plantearse varias ubicaciones, no obstante, se propone que sea en los terrenos del municipio de Abadiño próximos a Durango. De este modo, se aprovecharían las sinergias derivadas de la formación y la investigación y se favorecería la relación entre la formación y las empresas."*

*Durangar bezala ezin dugu ulertu zelan gure udal gobernuak, Durangoko eta durangarren interesak defendatu beharrean, Durangorentzat oso kaltegarria izango den garapen urbanistikoari alfonbra gorria jarri diola.*

*Como durangueses y duranguesas, no entendemos que el equipo de gobierno, en lugar de defender los intereses de la ciudadanía, extienda la alfombra roja a un desarrollo urbanístico totalmente perjudicial para Durango.*

*Horregatik;*

*Por ello;*

*Durangoko osoko bilkurak hurrengo hau onartzen du:*

*El pleno municipal de Durango acuerda:*

- *Abadiñoko udalari, San Faustoko auzoaren ondoan garatu nahi duen lurzoroaren tramitazioan onespena ez ematea. Era horretan, momentuz ez da hitzarmenik sinatuko eta gure Plan Orokorraren parte hartze prozesuan gai hau bereziki garatuko da. Horren ondoren, Durangarrek erabakitzen dutena Abadiñoko udalari helaraziko zaio eta beharrezkoak diren izapideak jarraituz gauzatuko da.*

- *No conceder la aprobación a la tramitación de suelo que el Ayuntamiento de Abadiño tiene pensado realizar junto al barrio de San Fausto. De este modo, de momento, no se suscribirá el convenio y la cuestión será estudiada en el proceso participativo del Plan General de Durango. Posteriormente, se dará cuenta al Ayuntamiento de Abadiño de lo que han decidido los durangueses y duranguesas, y se hará de acuerdo a las tramitaciones que sean necesarias.*

- *Bitartean, Abadiñoko udalak aurreikusita daukan garapena egitea gurako balu Durangoko hiri antolaketari eraginik sortarazi barik egin beharko luke eta horrela ez balitz, Durangoko udalak beharrezkoa diren tresnak erabiliz durangarren interesak defendituko ditu.*"

- *Mientras tanto, si el Ayuntamiento de Abadiño decide realizar el desarrollo que tiene proyectado, deberá hacerlo sin afectar al ordenamiento urbanístico de Durango, y de no hacerlo, el Ayuntamiento de Durango, valiéndose de las herramientas que precise, defenderá los intereses de los durangueses y duranguesas.*"

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Mozio hau ez da Abadiñok egin nahi duen lurzoru sailkapen berriaren kontrako mozio bat, baizik eta, mozio hau Durangon aurkezten dugu nahi dugulako Durangon tokiko merkataritza defendatu, beraz, tokiko merkataritzaren aldeko mozio bat da, oso argi daukagulako hirugarren merkatal-gune handi bat Durangoko mugetan oso txarra izango litzatekeela tokiko merkatarientzat.

Abadiñok 32.000 metro karratu nahi ditu sailkatu urbanizagarri bezala eta bertan merkatal-gune berri bat ezarri. Guk honen kontra egingo dugu, tokiko merkataritza kaltetzen duelako eta Durangoko auzo batean eragin handia izango duelako, San Fausto auzoan, hain zuzen ere.

Lehenengo eta behin eskertu behar diegu San Faustoko auzokideei honen inguruan eztabaida ireki bat antolatu zutelako. Hemen ordezkaritza dugun talde politiko guztiak gonbidatuta egon ginen bertaratzeko eta guztiak bertaratu ginen Eusko Alderdi Jeltzalea izan ezik. Bertan agerian geratu zen informazio falta zegoela gai honen inguruan. Egia da ondoko herriak egin nahi duen garapen urbanistiko baten inguruan ari garela baina egia da baita ere auzo horretan izango eragin urbanistikoa izango duela, mugikortasunaren aldetik batez ere, eta seguruenik, sozialki ere eragin handia izango du. Hala ere, informazio falta nabarmena da.

Durangoko udalerriko lurzoruak beharrezkoak dira gune hau garatu ahal izateko eta horretarako garapena egin nahi duen enpresa pribatuak, Abadiano deitzen dena, hitzarmen bat proposatu dio Durangoko udalari. Eta hori da guk onartu nahi ez du-

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: Esta moción no es una moción en contra de la nueva clasificación de suelos que quieren hacer en Abadiño, sino que presentamos esta moción en Durango porque queremos defender en Durango el comercio local; es, así, una moción a favor del comercio local, porque tenemos muy claro que un tercer centro comercial en las fronteras de Durango sería muy perjudicial para los comerciantes locales.

Abadiño quiere clasificar 32.000 metro cuadrados de suelo como suelo urbanizable y quiere establecer en ese espacio un nuevo centro comercial. Nosotros estamos en contra, porque perjudica al comercio local y porque influirá muchísimo a un barrio de Durango, precisamente al barrio de San Fausto.

Debemos, primero, agradecer a los vecinos de San Fausto el hecho de haber organizado un debate abierto sobre este tema. Todos los grupos políticos que contamos aquí con representación estuvimos invitados a asistir al debate y acudimos todos menos el Partido Nacionalista Vasco. Fue evidente que existía falta de información acerca de este tema. Es verdad que estamos hablando sobre un desarrollo urbanístico que quiere abordar el municipio de al lado, pero también es verdad que se someterá a ese barrio a una influencia urbanística, sobre todo en lo que se refiere a movilidad y seguramente, tendrá una gran influencia, también, socialmente. De todos modos, la falta de información es evidente.

Los terrenos del municipio de Durango son necesarios para el desarrollo de dicho espacio y la empresa privada que quiere realizar el desarrollo correspondiente, llamada Abadiano, ha propuesto un convenio al Ayuntamiento de Durango. Y es ese convenio el que nosotros no

guna eta horregatik ekartzen dugu mozio hau osoko bilkurara. Hitzarmena sinatzen bada atea zabaltzen zaio merkataritza garapen urbanistiko horri.

Eta hainbat arrazoi dauzkagu horren kontra egiteko; besteak beste, ez dituztelako aztertu behar den bezala ondorio guztiak. Kontua ez da bakarrik nondik pasatuko den errepide bat edo non jarriko den espaloi bat edo nondik sartuko diren tuberiak. Hori baino gehiago da, garapen urbanistiko hau egiten bada, ondorioak askoz sakonagoak izango dira Durangorentzat.

Besteak beste, aztertu behar dugu zer suposatuko duen ekonomikoki Durangoko dendarientzat eta Durangoko taberna eta jatetxeentzat beste garapen komertzial bat egitea jadanik saturatuta dagoen gune batean. Beste alde batetik, aztertu beharko litzateke mugikortasun aldetik zer suposatuko lukeen ostiral batean beste 3.000 kotxe sartzea, dagoeneko, ostiraletan saturatuta dagoen errepide batean eta San Fausto auzoan.

Momentu honetan Durangon gure plan orokorra aztertzen ari gara eta uste dugu hau badela gai bat aztertu beharrekoa, alegia, zein eredu komertzial nahi dugun, zer suposatu duten orain arte garatutako merkatal-guneak... Eta, gure ustez, eztabaida merkatari elkarteekin egin beharko litzateke. Orain hartu ahal ditugun erabaki batzuk etorkizunean eragin oso sakonak eta larriak izan ditzaketelako.

Beraz, ez dugu uste beharrezkoa den informazio guztia eman denik gai honen inguruan, ez dugu uste behar den eztabaida egon denik, uste dugu, arlo sozial eta ekonomikoari begira, azterketa bat egin beharko litzatekeela plan orokorraren barruan. Pentsatzen dugu ez dela momentua hitzarmen hori sinatzeko eta eskatzen dugu onespena ez ematea momentu honetan eta itxarotea guk geure plan orokorra eztabaidatu arte.

* <u>**Garate Mintegui jaunak (PP)**</u>: Egia da San Fauston egindako bileran, EAJ ez beste guztiok egon ginen hartan, informazio-falta zegoela iruditu zitzaigula denoi. Orduan eta gaur ere eman diren argudioak ez dira, nire ustez, merkataritza-zentro

queremos aceptar y por ello presentamos esta moción en el pleno. Si se firma el convenio, se le abre la puerta a ese desarrollo urbanístico comercial.

Y tenemos varias razones para estar en contra; entre otras, que no se han analizado apropiadamente todas la conclusiones. La cuestión no es solamente por dónde transcurrirá una carretera o dónde se colocará una acera o por dónde se introducirán las tuberías. Es más que eso; si se lleva este desarrollo urbanístico a cabo, las consecuencias serán mucho más profundas para Durango.

Entre otros, debemos analizar qué supondrá económicamente para los comerciantes de Durango y los bares y restaurantes de Durango, la materialización de otro desarrollo urbanístico, en un espacio que está ya saturado. Por otro lado, se debería analizar lo que supondría desde el punto de vista de la movilidad que un viernes se introdujeran otros 3.000 coches en una carretera que los viernes está saturada ya en el barrio de San Fausto.

En este momento, estamos analizando en Durango nuestro Plan General y creemos que éste es un tema que se debería analizar; es decir, qué modelo comercial queremos, qué han supuesto los centros comerciales que se han desarrollado hasta ahora... Y en nuestra opinión, el debate se debería hacer con las asociaciones de comerciantes. Porque las decisiones que tomemos ahora pueden tener en el futuro consecuencias muy profundas y graves.

Por ello, no creemos que se haya dado toda la información necesaria sobre este tema; no creemos que haya habido el debate que hace falta, y creemos que considerando los aspectos sociales y económicos, se debería realizar un estudio dentro del plan general. Pensamos que no es el momento de firmar ese convenio y solicitamos que no se dé el consentimiento en este momento y que se espere hasta que nosotros hayamos debatido nuestro plan general.

* Concejal <u>**Sr. Garate Mintegui (PP)**</u>: Es cierto que en la reunión que se hizo en el barrio de San Fausto, en la que estábamos todos menos el PNV, achacábamos todos, una falta de información. Tanto en aquella ocasión como hoy se vienen dando

bat edo lurzoruaren kalifikazioa aldatzeari babesa emateko edo ez emateko erabakia hartzeko aintzat hartu behar ditugun argudioak.

argumentos que yo creo que tampoco son los que nos deben de llevar a tomar una decisión en cuanto a si apoyamos o no apoyamos que pueda haber un centro comercial o una recalificación del suelo.

Egia da baldin eta Abadiñoko Udalak merkataritzako zentro baterako lurraren baimena nahi badu, Durangoko Udalak hornitze-zerbitzua egitea behar duela, baina gero haientzat izango dira enplegusorrerari, zergak eta tasak kobratzeari lotutako onurak eta guretzat ezer ez. Ni Durangoko herritar guztien interes orokorrak babestearen alde nago eta ez diot honi ikusten Durangoko herritarrentzako interes orokorrik. Uste dut San Fausto auzoan zirkulazioa handituko dela eta beste eragozpen batzuk ere ekarriko dituela, eta ez diot onurarik ikusten.

Es cierto que si el Ayuntamiento de Abadiano quiere tener una autorización del suelo destinado a un centro comercial, para eso necesita que el ayuntamiento de Durango le haga el servicio de abastecimiento, pero luego se van a quedar con todos los beneficios de creación de empleo, de cobro de impuestos y tasas y nosotros nada. Yo como defensor de los intereses generales de todos los ciudadanos de Durango, no veo el interés general para los vecinos de Durango. Veo que para el barrio de San Fausto va a haber un aumento del tráfico y una serie de prejuicios y no le veo el beneficio.

Momentuz, aipatutako bileran egon ez zen taldeari entzutea gustatuko litzaidake.

De momento me gustaría escuchar al grupo que no estuvo en la mencionada reunión.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: ordezko testu bat aurkeztuko dugu. Mozioa erderaz irakurtzen du:

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Presentamos un texto alternativo. Lee la moción en castellano:

*"El Ayuntamiento de Abadiño, siguiendo con el proyecto de recalificación del suelo próximo a San Fausto, ha llevado a cabo la aprobación inicial de la modificación puntual del Plan General.*

*Desde la oficina técnica municipal ha procedido al estudio de las consecuencias que este nuevo plan urbanístico de Abadiño puede suponer en los servicios, movilidad y medio ambiente del Ayuntamiento de Durango. Posteriormente, se llevó a cabo la redacción del informe técnico derivado del citado estudio, el cual fue remitido al Ayuntamiento de Abadiño. Así mismo, se solicitó al Ayuntamiento de Abadiño que tuviera en cuenta las consecuencias y requisitos recogidos en el citado informe en relación a la modificación del plan municipal que tenían previsto realizar.*

*El Ayuntamiento de Abadiño, en pleno celebrado el 18 de julio de 2018, procedió a la aprobación inicial de la modificación del Plan General, pero no ha tenido en cuenta los requisitos solicitados por el Ayuntamiento de Durango. Por ello, el Ayuntamiento de Durango presentó un recurso el 21 de agosto en el Ayuntamiento de Abadiño con el objeto de defender los intereses de los durangueses y duranguesas.*

*Si se cumplen las condiciones requeridas por el Ayuntamiento de Durango no debe haber ningún tipo de problema en el ámbito de la movilidad, por lo que, aprovechando que Abadiño desea hacer su modificación, se puede conseguir un trazado vial beneficioso para el barrio de San Fausto.*

*El hecho de que la modificación promovida por Abadiño sea conforme o no al ordenamiento territorial debe dirimirlo la Comisión de Ordenamiento Territorial de Euskadi. El Plan Territorial Parcial de Durangaldea prioriza el establecimiento de un parque de ciencias y formación en los terrenos que se plantean modificar con el objeto de aprovechar las sinergias derivadas de la formación y la investigación, favoreciendo a su vez la relación entre los centros de formación y las empresas.*

*En consecuencia, corresponde a la Comisión de Ordenamiento Territorial de Euskadi dirimir si la modificación promovida por el Ayuntamiento de Abadiño es conforme o no con el ordenamiento territorial. Por ello, no podemos extraer consecuencias legales sobre esta cuestión en tanto en cuanto no conozcamos el contenido del informe de la Comisión de Ordenamiento Territorial.*

*Por todo ello,*

*El pleno municipal del Ayuntamiento de Durango, aprueba lo siguiente:*

1. *Solicitar al Ayuntamiento de Abadiño, en relación a la tramitación de suelo que tiene pensado realizar en los terrenos próximos al barrio de San Fausto, que tenga en cuenta el recurso presentado por el Ayuntamiento de Durango antes de que proceda a su aprobación provisional.*

2. *En caso contrario, el Ayuntamiento de Durango, valiéndose de las herramientas que precise, defenderá los intereses de los durangueses y duranguesas."*

* **Lopez Lakunza jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Ez daukagu inolako zalantzarik; Durangoko Udalak, beste batzuen laneko onuren alde lan egiten duen bezalaxe, San Faustoko herritarren alde ere lan egiten du eta informazioa ematen die. Durangaldeko plan partzialean ez dago aurre ikusita eremu horren lurzoru komertziala ezartzerik. Hori horrela, galdera batzuk sortu zaizkigu: zergatik ez zen egin bere garaian? Urte batzuk obrarik egin gabe egon ondoren, eta Durangaldea energia berriztagarriaren gune izango zela erabaki ondoren, zergatik erabaki zen gune hori Ezkerraldean izango zela?

Gure Taldean, une honetan, uste dugu ez lukeela zentzurik izango Durangaldean beste energia gune bat sortzeak, bikoiztea litzatekeelako. Hala ere, beharrezkoa iruditzen zaigu prestakuntzaren arloan ingurumen-kontrolerako sare bat egitea. Hiru herri daude, une honetan, Bizkaian: aeronautikarena Zamudion, energiaren Ezkerraldean eta autogintzarena Boroan. Eta hor dugu guk aukera, autogintzan.

